

V. ERANSKINA

Lehentasunezko irizpideak.

a) Ikasten duten senideak izatea ikastetxean edo atxikitako ikastetxean: gehienez ere 6,5 puntu.

– Neba-arreba bat edo gehiago daude eskatutako ikastetxean edo hari atxikitako ikastetxeren batean matrikulatuta: 6,5 puntu.

– Ikastetxeko sarrera-mailan bi neba-arrebak edo gehiagok aldi berean egitea eskaera: 6,5 puntu.

b) Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna (kontzeptu horiek ez dira metagarriak). Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.

– Eragin-eremuaren barruan, ikaslearen bizilekutik hurbilen dagoen eta eskatutako hezkuntza-maila eskaintzen duen ikastetxe publikoa edo itunpeko ikastetxea eskatu bada: 7 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago ikaslearen bizilekua: 5 puntu.

– Eskatutako ikastetxea (publikoa zein pribatu itunpekoa) eskatutako hezkuntza-maila eskaintzen duen ikaslearen bizilekutik hurbilen dagoena bada, baina ez badago eragin-eremuan, baizik eta eragin-eremu mugakide batean: 5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean dago ikaslearen bizilekua: 2 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen udalerrian dago ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: 1 puntu.

– Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo: 0,5 puntu.

– Ikaslearen amaren, aitaren edo legezko tutorearen lantokia eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egotea: 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

c) Familia-unitatearen urteko errenta (kontzeptuak metatu egin daitezke). Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

– 2022ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 14.000 euroak gainditzen: 2 puntu.

– 2022ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu.

– Horrez gain, aurreko kasuetan, 0,25 puntu gehituko dira eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko. Irizpide osagarriak.

d) Ikastetxean edo atxikitako ikastetxean lan egiten duten senideak izatea.

– Amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean edo atxikitako ikastetxe batean lan: 5 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

e) Familia ugariko kide izatea.

- Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.
- Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 1 puntu.

f) Guraso bakarreko familia bateko kide izatea.

- Ikaslea guraso bakarreko familia bateko kide izatea: 1 puntu.

g) Erditze anizkoitzean jaio izana. Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

- Ikaslea 2 seme-alabako erditze anizkoitzean jaio izana: 1 puntu.
- Seme-alaba gehigarri bakoitzeko: 0,25 puntu.

h) Ikastetxeko eskola-kontseiluaren ustez garrantzitsuak diren bestelako egoerak.

- Ikastetxeko eskola-kontseiluak ezarritako baldintzengatik (aurretik esandakoak ere izan daitezke). Horiek irizpide publiko eta objektiboak jarraikiz eta jaiotza-, arraza-, sexu-, erlijio-, iritzi-arrazoiengatik edo beste edozein egoera edo baldintza pertsonal edo sozialengatik inor baztertu gabe ezarri dira: gehienez 1 puntu (baldintzak jakitera eman beharko dira, eta dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkarari jakinarazi, eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehen).

i) Kooperatiba-bazkide izatea.

- Familia-unitateko kideren bat eskatu den ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

j) Beste batzuk:

1.– Desgaitasuna. Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

- Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.
- Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo neba-arrebaren batena baldin bada: 1 puntu.

2.– Familia-unitatea lekuz aldatzea honako arrazoi hauengatik: nahitaez mugitu beharra, azken urtean familiako kideetako edozein desgaitu izana edo genero-indarkeriaren edo terrorismo-ekintzen ondoriozko bizileku-aldaketa: 0,5 puntu.

3.– Familia-harrerako egoera. – Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik: 1 puntu.

4.– Genero-indarkeriaren biktima izatea. – Ikaslea, ama edo legezko tutorea genero-indarkeriaren biktima izatea. 1 puntu.

5.– Terrorismoaren biktima izatea. – Ikaslea, aita, ama edo legezko tutorea terrorismoaren biktima izatea. 1 puntu.